

1.- UNITATEA: NOR GINEN

1. MAIALEN ETA XANTI ERRALDOIAK

Egitasmoari hasiera emateko, *Maialen* eta *Xanti* herriko erraldoi ezagunak eta maitatuak aurkeztea egokia izango litzateke.

Haur gehienek ezagutuko dituzte, *Madalenetan* dantza egiten baitute, eta amaieran elkarri musua ematen diote. Jende multzo handia biltzen da ikuskizun horren inguruan, eta azken urteetan haurrek erraldoiei beren txupeteak ematea ohiko bihurtu da.

Aurkezpena balia dezakegu erraldoi eta buruhandien konpartsari buruzkoak lantzeko. Elkarrizketa susta dezakegu eta hipotesiak egiteko balia dezakegu: Ba al dakizu nola duten izena erraldoiek?

- Zergatik ote dute izena Maialen eta Xanti? (etxean galdetzera eta inguruan ikertzera gonbida ditzakegu)
- Ikusi al dituzu inoiz? Noiz?
- Ba al dakizu zer egiten duten?
- Nori eman zenion zuk txupetea?
- Ba al dakizu nortzuk joaten diren erraldoiekin batera? Haien izenak ezagutzen al dituzu? Ea denen artean ikerketa txiki bat eginez jakiten ditugun!
-

JARDUERA 1: *Hor dituzu erraldoiak bakoitza bere izenarekin. Ipin zurea hor agertzen den haur baten azpian. Beste haurraren azpian nahi duzun lagunarena ipin dezakezu.*

Nori eman nahi diozu txupetea? Marraztu sokatik zintzilik.

JARDUERA 2: *Zure aurpegiaren argazkiari fotokopia atera eta itsas ezazu horietako baten aurpegiaren gainean.*

Koadernoko 3. Orrialdea

JARDUERA 3: *Hementxe dituzu Maialen eta Xantiren irudiak zure gustura margotzeko.*

Material osagarria: [Maialen eta Xantiren irudiak](#)

2. ZER DAKIGU HERRIARI BURUZ?

Hurrek etxean galde dezakete edo iker dezakete liburuetan edota interneten herriari buruzko informazioa. Batez ere ahozko bilaketan ipini beharko genuke indarra: galdetu gurasoei, aitona-amonei, bizilagunei...

Esparru guztietako informazioa izan liteke baliagarria, nahikoa da esaldi batean laburtzea. Panel batean ipin dezakegu denen artean bildutako informazioa.

Nahi izanez gero, informazioa multzoka liteke gaika, informatzailearen adinaren arabera... Zuen gustura.

JARDUERA: Herriko txokoetako hainbat argazki dituzue orrian. Biribil itzazu ezagutzen dituzunak.

Koadernoko 4. Orrialdea.

3. ZER IKASI NAHIKO ZENUKE?

Elkarrizketa proposa daiteke herriari buruz ikasi nahiko luketena eztabaidatzeko.

Talde txikietan antola ditzakegu haurrak eta haien artean hitz egin dezakete, bakoitzak taldeari adieraziz zer jakin nahiko lukeen. Ondoren, bateratze lana egin dezakegu.

Azkenik, aukera dezakegu bakoitzak idaztea zer ikasi nahiko lukeen edo denen artean erabakitzea zer den talde gisa ikasi nahi dutena.

JARDUERA: Idatzi ikasi nahiko zenituzkeen gauzak.

Koadernoko 4. orrialdea.

4. NOLAKOA DA GURE HERRIA?

Proposamen honetan deskribapena landu dezakegu.

JARDUERA: Proposatutako diren esaldietan batzuk egia dira eta besteak ez. Markatu egia direnak.

Koadernoko 5. orrialdea.

5. HERRIAREN MARRAZKIA

Haur bakoitzak herriarekiko bere pertzepzioa izango du, seguruenik. Marrazteko eskatuko diegu.

Ondoren, marrazkiak aldera ditzakegu, edo ikasle bakoitzak berea azaltzeko eskatu. Marrazkia egiterakoan, ezagutzen dituzten elementu guztiak marrazteko eskatuko diegu.

JARDUERA: Marraztu herria, zuk ezagutzen duzun bezala. Saia zaitetz ahalik eta gauza gehien marrazten.

Koadernoko 5. orrialdea.

6. HASIERA BATEAN...

Hasiera batean, Euskal Herria itsaspean zegoen. Itsas hondotik azaleratu ziren lehen lurra Aiako Harriaren inguruko lurra izan ziren. Beraz, inguru horietako lurra dira Euskal Herriko lurrik zaharrenak, Aiako Harritik Bianditz bitartekoak, hain zuzen. Gainera, Euskal Herrian eraketa granitikoa duten mendi bakarrak dira.

Nahi izanez gero, hitz egin dezakegu hurrekin lur barruko mugimenduei buruz, eta nola horien eraginez lurra tolestu eta azaleratu ziren. Hasieran uharte izango ziren haiek, gaur egun gure inguruko mendi tontorrak dira.

Koadernoko 6. orrialdea.

7. ... DENA ITSAS AZPIAN ZEGOEN

Lurraren sorrera aztertu ondoren, bizitzaren sorrerari buruz eta garai hartan izan ziren bizidunei buruz arituko gara.

Bizitza itsasoan sortu zen. Lehen bizidun haien berri eman digute aurkitu diren fosilek.

Eska diezaiekegu ikasleei etxean dituzten fosilak edo haien argazkiak ekartzeko. Fosiletan landareen eta animalien aztarnak aurkituko ditugu.

Fosilen sorrerari buruzko hipotesiak egin ditzakegu hurrekin.

Elkarrizketa sor dezakegu taldean ezagutzen duten bizidun zaharrenaren gainean. Baliteke dinosauroak aipatzea ezagutzen duten bizidun zaharrenetako gisa.

Dinosauroen gaia oso erakargarria gertatzen da haurrentzat; beraz, nahi adina sakon dezakegu horretan.

Kontuan izan egungo Euskal Herriaren eremuan ez zela dinosaurorik bizi izan. Dinosauroak ur bazterrean bizi ziren, eta garai hartan, aipatu dugun bezala, Euskal Herria ur azpian zegoen. Gaur egungo Errioxa izango litzateke ur bazterra eta horregatik daude han dinosauroen aztarnategi handiak.

Irudian ikus daitekeenez, Maialen eta Xantik fosilak topatu dituzte haitzean: fosil batzuk animalienak dira eta beste batzuk, berriz, landareenak.

JARDUERA: Xantik hainbat fosil erakutsiko dizkigu. Zer diren esango digu. Era berean, Maialenek eskaintzen dizkigun fosiletan dauden kolore kodeak jarraituz, azpian nahasian ageri diren esaldiak egoki ordenatu ahal izango ditugu. Ondoren, ordena egokian idatzi azpian eta fosilei eta dinosauroei buruz gehiago jakingo dugu.

Koadernoko 7. orrialdea.

8. LEHEN GIZAKIAK

Landarbasoko mendian Aizpitarteko kobazuloak daude. Haurrek ezagutuko dituzte, seguruenik, Listorreta eta Barrengoloiako atsedenekuetatik hurbil daudelako.

Kobazulo multzoa bost leizek osatzen dute, eta Kukuruzulo izenez ere ezagunak dira.

Koadernoko 8. orrialdeko marrazkia aitzakia hartuta hurrekin hitz egin dezakegu kobazuloei buruz: ezagutzen ote dituzten, noizbait egon ote diren han; norik egin ote zituen; zertarako balio ote zuten; eta abar. Irudian, Aizpitarteko IVko sarrera ikus liteke, baita Landarbasoko erreka ere.

Marrazkia aztertuz, lehen gizaki haiek nola bizi ziren jakin dezakegu.

LARRUEN PRESTAKETA: Ehizatzen zituzten animalien larruak erabiltzen zituzten janziak eta oinetakoak egiteko. Lehenik garbitu, gero tratatu eta, azkenik, ondu egiten zituzten.

ELIKAGAIEN KONTSERBAZIOA: Hainbat modu erabiltzen zituzten elikagaiak luzarago kontserbatzeko: erretzeaz gain, izoztu, lehortu, gazitu eta ketu ere egiten zituzten.

ARRANTZA: aztarna arkeologikoetan arrainen hezurdura gutxiago aurkitu arren, hainbat kobazulotako hormetan aurkitutako arrainen marrazkien bidez badakigu arrantzan egiten zutela.

FRUITU BILKETA: fruituen arrastoak aurkitzea zailagoa den arren, ezagunak dira: haien erabilera elikaduran, janziak, erremintak, bizilekuak egiteko zuntz gisa, baita sendagai moduan ere.

ERREMINTAK: eguneroko bizitzan erabiltzen zituzten hainbat motatako tresnak egiteko zenbait harri, egur eta adar erabiltzen zituzten.

Kobazuloetan aurkitu diren aztarnen eta tresnen azterketek erakutsi dute, lehen biztanleen lekukotasuna **k.a. 35.000 urtekoa dela**. Horrek esan nahi du, Hego Euskal Herrian aurkitutako lehenengo aztarnategi paleolitikoa dela Aizpitartekoa, eta Kantauri osoko garrantzitsuena.

Kobazuloak, Landarbaso errekatik hasita zenbatuta daude. Aizpitarte II, III, IV eta V kobazuloetan aztarna arkeologikoak aurkitu dira: landutako harrizko eta hezurrezko tresnak, fauna hondakinak eta abar. Horrek baieztatzen du Goi

paleolitoan (k. a. 40.000 eta 10.000 urte) ehiztariak bizi zirela kobazulo horietan.

- Aizpitarte I: erreka mailan dago, ez du garrantzirik.
- Aizpitarte II: haitzulo handia da.
- Aizpitarte III: zabala eta sakona da, pasabide luzeak ditu. Bisonteen, uroen, sarrioen eta oreinen aztarnak aurkitu dira.
- Aizpitarte IV: gehienbat oreinak eta sarriok agertu dira, eta kopuru txikiagoan basahuntzak, orkatzak eta zaldiak. Aurkitutako tresnetan, zulatutako makila bat, puntzoiak, orratzak eta arpoiak daude.
- Aizpitarte V: kobazulo hauek izan ziren, hain zuzen, herriko lehen biztanleen bizilekua.

JARDUERA: Elkarrizketaren ondoren, orrialdearen azpiko aldeko ariketa egin dezakegu. Pieza bakoitzak aurkezten duen eragiketa eginez gero, jakingo duzu letra bakoitza non kokatu behar duzun. Hitza osatuta, kobazuloari buruz informazioa ematen duen esaldia irakur dezakegu denen artean.

Koadernoko 8. orrialdea.

9. LEHEN GIZAKIAK

Kobazuloetara jo zuten lehen gizakiek, glaziazio garai hartan hotzetik eta izotzetik babesteko.

Aizpitarteko kobazuloei buruzko testu laburra eskaintzen dizuegu hemen. Hurrei irakur diezaiekegu, eta ondoren proposatzen diren esaldiak zuzenak diren adieraz dezakete, bai eta ez zutabeak erabili, eta dagokionean, gurutze bat egin. Entzumena eta ulermena lantzeko ariketa gisa erabil dezakegu.

“AIZPITARTEKO KOBAZULOAK LANDARBASO INGURUAN DAUDE, LISTORRETAKE ATSEDENLEKUTIK HURBIL. AIZPITARTEKO KOBAZULOAK BOST LEIZE DITU, LANDARBASO ERREKAREN ONDOAN DAGO LEHENA ETA, GAINERAKOAK, MENDIAN GORA KOKATZEN DIRA, BATA BESTEAREN GAINEAN”.

JARDUERA: Aizpitarteko kobazuloei buruzko testua arretaz entzun, ondoren aurkezten zaizkizun esaldiak zuzenak diren ala ez erabaki beharko baituzu, BAI ala EZ zutabeen markatuz.

Koadernoko 9. orrialdea.

10. AIZPITARTEKO KOBAZULO KO BITXIKERIA

Orrialde horretan, era berean, kobazuloei buruzko bitxikeria bat eskaintzen da. Historiaurreko garaietan hartzak, oreinak, bisonteak, sarrioak eta abar bizi izan ziren. Haiek guztiak desagertu ziren. Gaur egun, saguzarrak, harrak eta inguru horietan soilik aurkitu den kakalardo mota bat bizi da: *Ceuthosphodrus Navaricus*.

11. SUA

Suaren aurkikuntzak iraultza handia ekarri garai hartako jendearentzat, bizitzeko modu erosoagoa eskaini baitzuen, besteak beste. *Aitzbitarteko Lagunen* web orrian su egiteko moduen azalpenak dituzue, nahi izanez gero. www.aitzbitartekolagunak.googlepages.com

Lehen gizakien garaian suak erabateko garrantzia zuen. Jendeak sua eskuratu zuenean, izugarrizko aurrerapena egin zuen jendarteak. Suaren historiari buruz aritu gaitezke, ea zer dakiten. Ondoren, galdera bat proposatzen zaie: Ba al dakizu nola egiten zuten sua? Entzun ondoren eta ikertu ondoren librea erantzuten utz diezaiekegu, eta ondoren informazioaren bateratze-lana egin dezakegu.

JARDUERA: Idatz ezazu behean, zure ustez, Lehen Gizakiek nola egiten zuten su. Koadernoko 10. orrialdea.

12. AURKITUTAKO AZTARNAK

Kobazuloetan hainbat indusketa egin dira. Kontuan izan behar da indusketa horietako asko egin zirenerako, kobazuloetan jende ugari ibili zela.

Antzinako sineskeria da kobazuloak altxor preziatuen gordeleku zirela. Horregatik, jendeak bere kontura zulatu ditu kobazuloetako hainbat bazter altxor bila.

Indusketak hasi zirenerako, beraz, kobazuloetako zenbait bazter miatuta zeuden jada.

Gainera, udalak hainbat urtez txanpinoi ustiaketa baterako alokatu zituen kobazuloetako lurrak, eta horrek ere asko baldintzatu zuen ondorengo lana. Hala ere, kobazuloan aurkitutako aztarnak baliagarriak izan dira garai hartako jendea nola bizi zen, zer jaten zuen eta beste jakiteko.

Kobazulo haietan bizi izan zen jendea ehiztari eta fruitu biltzaile izan zen. Kontuan izan behar dugu milaka urtez bizi izan zirela kobazuloetan, eta urte horietan garatzen joan zela haien bizimodua.

Hasieran harria lantzen zuten. Gero, harriaz gain, hezurak lantzen hasi ziren. Tresnak egiten zituzten eta baita apaingarriak ere.

Aizpitarteko kobazuloetako indusketetan aurkitutako piezak Donostiako San Telmo museoan daude, 10. orrialdean haien argazki eskaintzen da.

Suharriari buruzko informazioa biltzera anima ditzakegu, edo elkarrekin bila dezakegu. Suharriak zuen garrantziaz hitz egin dezakegu.

JARDUERA: Ikasleekin beha ditzakegu kobazuloan aurkitutako piezak. Hipotesiak egin ditzakete: zer ote ziren; zerekin eginak ote dauden; zertarako erabiltzen ote zuten; eta abar.

13. NORTZUK GEHIAGO BIZI ZIREN?

Antzinako garai izoztu haietan ez zen jendea bakarrik bizi. Animaliak ere bertan bizi ziren. Aizpitarteko kobazuloetan aurkitutako aztarnei esker jakin dezakegu, gutxi gorabehera, inguru horietan zein animalia bizi ziren: oreina, zaldia, zezena, sarria, ahuntza, elur-oreina, orkatza, bisontea eta uroa.

JARDUERA: Hainbat animalia argazkiak dituzu. Horietako batzuk ez dira lehen gizakien garaikoak, ezaba itzazu.

Nahi bada, ondoren, galde diezaiekegu zergatik ezabatu dituzten animalia horiek, ea zein hipotesi egiten dituzten. Informazioa elkarri truka diezaioke, eta adostasunik ez bada, eztabaida sortu.

Koadernoko 11. orrialdea.

14. GARAIKO ARTEA

Aizpitarteko kobazuloetako hormetan ez da pinturarik aurkitu. Hala ere, bertan bizi izan zen jendea artista izan zen. Hori erakusten du han aurkitutako hainbat piezaren apainketak. Horietako batzuen argazkia eskaintzen da.

JARDUERA: Piezak behatu ondoren, buztinaz edo plastilinaz antzeko piezak sortzera anima ditzakegu haurrak.

15. GARAIKO ELIKADURA

Eta zer jaten ote zuten garai hartako jendeek? Gurea bezalako elikadura ote zuten?

Elkarrizketa bultza dezakegu elikaduraren inguruan. Laguntzeko hainbat arrasto eskain diezaiekegu: garai hartako jendea ehiztaria zen, fruitu biltzailea, haiek egiten zituzten tresna guztiak...

JARDUERA: Elikagai batzuk dituzu zerrendan. Horietatik zenbait gure arbasoen elikagaiak izango ziren, BAI idatzi ondoan; besteak ez ziren, EZ idatzi.

Koadernoko 11. orrialdea.

16. KONTAKIZUNA

Orain dela urte asko, antzinako garaietan, lau zangodun pizti bat bizi omen zen Aizpitarteko kobazuloetan.

Batzuetan, leize atarira agertzen zen. Beste batzuetan, berriz, Beringarate-bekoa izena zuen baserriko sukaldean agertzen omen zen.

Nahi izanez gero, ikasleak ere kobazuloetan kokatutako kontakizun bat asmatzeko ahalegina egin lezake.

17. IBILALDIAREN MAPA

Unitate honetako gaiak hainbat aukera eskaintzen ditu ibilbideak egiteko.

Kontuan izanik gaiekin zerikusi duten tokiak herritik nahikoa aparte daudela, eskaintza egiterakoan, lau ibilbidetan multzokatzea erabaki da. Ibilbide bakoitzak kolore bat du mapan hobeto aurki dezazun.

Duzuen baliabideen, aukeren edo gustuen arabera hautatu beharko dituzue, konbinatu edo zuen egokierakoak sortu.

A. ibilbidea

AIZPITARTEKO KOBAZULOAK + LANGAGORRIKO ZISTA

Perurena tabernaren ezkerretatik igarotzen den errepidea hartu behar duzue. Hasieran espaloia dago, baina gero bide bazterretik joan behar da, kontuz, beraz. Bidean bi kilometro aurrera jarraitu eta eskuinera, belaze batean, Langagorriko zista ikusiko duzu.

Handik aurrera egin, eta berehala Igoin- Akola multzoko zenbait trikuharri iragartzen duen panela topatuko duzu, bide bazterrean ezkerretara. Bertatik, beheantz abiatzen den bidea hartzen baduzue mendian gora barreiatuta dauden trikuharriak aurkituko dituzue, eta handik Igoin- Akola multzora iritsiko zarete.

Trikuharriak ongi seinaleztatuta daude, baina Ibilbidea luzea eta aldapatsua izan liteke adin horretako haurrentzat.

Errepideari jarraitzeko aukera egiten baduzue, Listorretako atsedenekua igaro ondoren, Barrengoloia atsedenekura iritsiko zarete. Hortik aurrera, PR-GI 86 (haitzuloak) ibilbidetik abiatu markesina batera iritsi arte. Bertatik, Aizpitarreko haitzuloetara igotzen den ezkerreko bidea hartu behar duzue.

Ikusten duzuenek, atsedeneku horietan aukera izango duzu ikasleekin bazkaltzeko. Iturriak badaude. Autobusa atsedeneku horietaraino iristen da.

AIZPITARTEKO KOBAZULOAK

Aizpitarteko kobazuloak bost leizez osaturik daude. Leize handienak III. eta IV. dira.

Milaka urte dira kobak ezagutzen direla, Araban, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan aurkitutako lehen aztarnategi paleolitikoa da, eta gainera, Kantauri osoko garrantzitsuenetakoa.

Aizpitarteko zenbait koba paleolito garaiko ehiztarien bizileku izan ziren, duela 35.000 urte gutxi gorabehera.

Udal jabetzakoak diren koba horiek, XX. mendearen hasieran txanpiñoi ustiaketa egiteko alokatu ziren. Horrek asko baldintzatu ditu gaur egun ere egiten ari diren indusketak.

Kobazuloetan aurkitu diren objektuak hauek dira, besteak beste: maskorrak, animalien hezurak, jendeak eginiko **bi lerro horzduneko bost arpoi**, gezienezko dozena bat punta, gaizki tailatutako hainbat silex, brontzezko objektuak eta abar.

LANGAGORRIKO ZISTA

Burdin aroko monolito ikusgarria da. Ehorzketak egiteko erabiltzen zuten. Zutik dagoen monolito edo zutarri hori, harlauza formakoa da. Lur gainean 1.20 m altuera du, eta 1.60 eta 0.90 tarteko zabalera. Mendebaldeko aurpegiaren erdian gurutzea du. Gurutzearen ertz bakoitzak triangelu bat du, azpikoan izanik ezik, hor falta baitzaio.

Esaten dutenez, zista horren azpian lepoko aleak, eta urrezko eskumuturrekoak aurkitu zituzten.

Gaur egun monumentua ia etzanik agertzen da. Inguruko baserrikoek diotenez, beste garai batean, antza, monolitoa zutik zegoen. Haren oinarriaren ondoan hazi zen zuhaitz baten sustraiek okertu zuten arte. Konturatu zirenean zuhaitza bota egin zuten.

B. Ibilbidea

BERROZPIN + AITZETAKO TXABALA + TXORITOKIETAKO ZUTARRIA

Zamalbide auzoko baselizara iristerakoan, San Markoko gotorlekura doan errepidea hartu behar duzue (adierazita dago). Pistan gora hasi eta baselizatik 1,6 kilometrora, hainbat seinale dituen bidegurutzearekin topo egingo duzu. Jarraitu *Txoritokieta mendia* adierazten duen seinalea, ezkerretara, alegia.

Aldapan gora zoazela, eskuin aldean bidexka bat ikusiko duzu, trikuharria markatzen duen seinale hori bat du alboan. Handik abiatzen da arrasto zuria eta berdea duen bidea. Handik gora jarraitu.

Bidegurutzetik 300 bat metrora Aitzetako Txabala atsedenekura iritsiko zara. Han beste seinale batekin topo egingo duzu, aurrez aurre. **Ezkerreko trikuharri** seinale horiak Aitzetako Txabala adierazten du. Berehala zuhaitzi batera helduko zara, hesiak babestutako eremuan erraz ikusiko duzu trikuharria.

Ondoren, bidean aurrera egin, kare-labe zahar baten ondoan igaroko zara. Aldapan gora igo eta norabideak adierazten duen beste zutabe bat aurkituko duzu. Hartu Txoritokieta adierazten duena. Hantxe eskuinetara atsedenekua dagoen zelaia aurkituko duzu. Bertan ikusiko dituzu BERROZPIN I, II, III TRIKUHARRIAK.

Norabideen zutabera itzulita, Listorreta adierazten duena jarraitu behar duzu Txoritokietako zutarrira iristeko. Bide horri Floreaga bidea ere esaten diote. Mendi bide zabal batetik aurrera egingo duzu. Beste trikuharri seinale hori bat aurkitu arte jarraitu. Seinaleak mendian gora egiten duen eskuineko bidea adierazten du. Bidea jarraitu eta sagastia mugatzen duen hesiaren alboan jarraitu. Beste seinale hori bat topatuko duzu. Langa pasa eta hortxe aurkituko duzu zutarria, sagarrondo artean.

Bada beste aukera bat, nahiz eta aurrekoa baino deserosoagoa izan, zutarrira heltzeko. Jarraitu Txoritokietako gotorlekura igotzen den errepidetik. Bidea amaitzen denean, haitzen ondotik doan bidetik jaitsi. Kontuz egin behar da bidea. Ibilbide osoa egiteko beharko duzuen denbora, gutxi gorabehera ordubetekoa da. Atsedenekuak mahaiak eta aulkiak ditu, beraz, leku egokia da ikasleekin bazkaltzeko edo hamaiketako egiteko.

Beste aukera bat da San Markoko aparkalekuraino autobusez joatea, eta San Markoko bidea oinez egitea. Handik Txoritokieta aldera doan bidea hartu eta

bigarren bidegurutzean, ezkerretara, bidexka bat abiatzen da, Floreagara doana. Bide horretatik ezkerretara dago atsedenekua.

BERROZPIN I, II, eta III

Egun atsedenekua den horretan, hiru trikuharri daude. Ehorzketa ganbarak dira. Oso gutxi ageri dira lurrazalera. Indusketak egin gabe daude.

AITZETAKO TXABALA

Trikuharria oso egoera onean kontserbatzen da. Berrozpin, mendi-magalean, kokaturik dago, eta 80 zentimetroko altuera eta 12 metroko diametroa du. Ganberak lau harlauza eta estalkia ditu, eta barrutik angeluzuzena osatzen dute.

Aitzetako txabala izeneko trikuharria topatu zutenek, inguruko toponimia aztertu zuten eta toponimo hori aukeratu zuten trikuharria izendatzeko.

TXORITOKIETAKO ZUTARRIA

Txoritokietako inguruan Txoritokieta izeneko estazio megalitikoa aurkitu zen 1962an.

Itsasoko mailatik 275 metrora dago estazioa, hortaz, Gipuzkoan altura baxuenean dagoen estazioa da.

Estazio hori osatzen du, hainbat trikuharriz gain, Txoritokietako zutarriak.

Antzinatik, zutarri hori, Astigarragarekiko mugarri gisa erabili da, eta Mugarriaundi izenaz ezagutzen da.

Burdin Arokoa da (900-300 K.a.) eta bere garaiera 1,95 metrokoa da. Haren aurpegi batean gurutze greko bat du grabaturik eta bestean 0 bat.

C. Ibilbidea

BERROZPIN AITZETAKO TXABALA + TXORITOKIETAKO ZUTARRIA + LANGAGORRIKO ZISTA + AIZPITARTEKO KOBAZULOAK

Aurretik proposatutako bi ibilbideak egin litezke egunpasa ibilbide bakarrean.

Txoritokietako zutarrria ikusi ondoren, utzi duzun Floreaga bidera itzuli behar duzu. Baserrira heltzen zarenean, porlanezko bidea jarraituz Perurenako bidera jaitsiko zara. Bidea arrasto zuri eta horiz adierazita dago.

Zati hori errepidez egin behar da, ez da luzea baina bide bazterretik erne joan behar da. Han, zubia pasa eta Perurenako tabernara iritsiko zarete. Hortik aurrera B. Ibilbidean proposatutako bidea jarraitzea besterik ez duzue.

Izan kontuan ibilbide honen hainbat zati errepidean zehar egin beharko dituzuela. Bestalde, haurrak ez badaude ohituta ibiltzera ibilbidea luze xamarra gerta dakieke. Alde horiek guztiak baloratu beharko dituzue abiatu aurretik.

D. Ibilbidea

ARDITURRI MEAZULOAK +LUBERRI GEOLOGIA IKASGELA

Oiartzun aldera doan Arditurriko bidegorriaren azken zatian Arditurriko meategiak daude.

Ibilbide laua den arren, herritik oinez egiteko luze xamarra izan liteke. Hainbat aukera egin ditzakezue: autobusez joan bidegorriak duen sarrera gunetakoren batera: Ugaldetxo, Altzibar, edo Ergoien.

Edo autobusez joan zintezkete Arditurriko sarreraraino eta handik bidegorria hartu. Aukera hori eginez gero, bidegorriaren azkeneko zatia ezagutu ahal izango duzue, hainbat tunel dituen, alegia.

Bestela, Interpretazio zentrotik gertu autobusentzat aparkalekua dago.

Interpretazio zentrotik bertatik galerietarako bisita antolatzen da.

Inguruan parkea dago, mahai eta aulkiekin. Badaude iturria eta komunak ere.

Eguraldiak laguntzen badu, haurrak errekan ibil daitezke, ez du ia sakonerarik inguru horretan.

Ergoieneraino bueltatzen bazara, han Pagoa industrialdean, Luberri geologia ikasgela aurkituko duzue. Bisitak antolatzen dituzte eta badituzte materialak eta fitxa didaktikoak gaia lantzeko.

Inguru horrek ez du eskaintzen aukera handirik hurrekin han egoteko, beraz, hantxe amai liteke ibilbidea.

Bi lekuetan sarrera ordaindu behar da. Kontsultatu taldeentzako eskaintzak haien web guneetan.

ARDITURRIKO MEAZULOAK

Meategiko lana 1986an utzi zuten bertan behera, hogeii mendeko historia zuen meatzeen erauzketak, eta, oraindik ere, ikusgai daude bertako azpiegitura batzuk. Erromatarrek, I. mendean, galena zillarduna erauzten zuten handik, eta horretarako galeria sare zabala sortu zuten. Galeria sare hori mendeen joan-etorrian aldatuz joan den arren, egun bi kilometro baino gehiago dituzten erromatarren galeriak ikus daitezke.

Juan Guillermo Thalacker Ingeniariak 1804an Arditurriko meatzeak bisitatu ostean hurrengo esan zuen: “Laurehun gizonek berrehun urtez ez lituzkete meazulo horiek guztiak zulatuko”.

Adierazpen hori lagungarri izan dakiguke Arditurriko meategiaren tamainaz eta berezitasunaz jabetzeko.

Bi mila urtez baino gehiagoz, ia etengabe, ustiaturiko Iberiar penintsulako meatze bakanetarikoa da Arditurri.

LUBERRI GEOLOGIA IKASGELA

Luberri Ikasgune Geologikoak Oiartzun haraneko, Oarsoaldeko eta Aiako Harriko ondasun geologiko nahiz paleontologiko oparoak erakusten ditu. Horrez gain, Euskal Herriko historia geologikoaren berri eskaintzen du, euskal lurren azken 1.000 milioi urteen historia, hain zuzen.

Museoak hainbat areto, gaikako gune eta beirazko 40 arasa dauzka. Horietan guztietan, Oiartzun haranean eta euskal lurraldeetako bazter askotan hartutako arroka, mineral, fosil eta gai geologiko ugari daude ikusgai, eta haien

inguruko sorrerari, ezaugarri nagusi eta agertokiei buruzko argibideak eskaintzen dira horma-irudietan.

Gainera, hainbat jarduera eskaintzen dituzte ikasleekin egin ahal izateko eta laborategian lan egiteko aukera dago. Bisitak antolatzen dituzte eta badituzte materiala eta fitxa didaktikoak gaia lantzeko

Koadernoko 12 eta 13. orrialdeak.

18. NEOLITOA

Giroa epeldu zenean bizimodua aldatu egin zen. Giro aldaketaren ondorioz, beste animalia mota batzuk agertzen hasi ziren eta natura ere aldatu zen.

Jendeak inguruaren aldaketa horretara moldatu behar izan zuen. Epeltzearen ondorioz, ugaritutako basoak moztu eta lurra lantzen hasi ziren. Nekazaritza garatzen hasi zen.

Animaliak, ehizatu beharrean, zaintzen hasi ziren, eta horrela artzaintza hasi zen. Beraz, jendea, , ehiztari eta fruitu biltzaile izatetik, nekazari eta artzain izatera pasa zen.

Irudian ikus litekeenez, Aizpitarteko biztanleek ere kobazuloak utzi eta Oartzun haranean behera, leku erosoagoen bila abiatu ziren.

Pentsatzekoa da txabolak eraiki zituztela, material galkorrez, seguruenik. Horrek haien aztarnak aurkitzea eragotzi du, eta bizitoki haien bizimoduari buruzko informazio gutxi izatea ekarri du.

Garai hartatik, batez ere, monumentu megalitikoek iraun dute, nahikoa ugariak gure inguruan, gainera. Haietan aurkitutako objektuetatik ondorioztatu da garai hartako jendeak buztina eta ehuna lantzen zituela.

Monumentu horiez gain, kasualitatez, Txoritokietako Putzuetako ur deposituan aurkitutako aizkora leundua dugu, gure arbasoek bizimodu eta jarduera berrirako inguruaren egokitzapenerako erabiliko zuten tresna, seguruenik.

Marraskia behatuz, Aiako Harriak, Aizpitartek leizeak, Txoritokieta, Aitzetako, Txabala eta Berrozpineko estazio megalitikoak ikus litezke.

Era berean, bizimodu berria finkatzeko, basoak moztu zituzten larreak eta baratzak eskuratzeko. Beste hainbat jarduera ere egiten hasi ziren: ehungintza, zeramika, nekazaritza, artzaintza, ale xigorketa, arrantza eta abar.

JARDUERA: Marrazkian bizimodu aldaketaren hainbat irudi eskaintzen dira. Taulan, ordu arteko bizimodua azaltzen da. Marrazkiei begiratu eta osatu behar dute falta dena.

Behatu marrazkia. Giroa epeldu zenean, neolito garaiko jendeak nola aldatu zuen bizimodua jakingo duzu. Ondoren, taula betetzeko hitzak bere lekuan kokatzen lagunduko dizu.

Koadernoko 14. orrialdea.

19. MONUMENTU MEGALITIKOAK

Gure herrian hainbat monumentu megalitiko daude: Txoritokietako zutoina, Berrozpineko trikuharriak, Aitzetako Txabala trikuharria eta Langagorriko zista.

Orrialde honetan proposatzen den jarduera deskribapena lantzeko da. Beraz, ikasleei ondorengo deskribapena irakur diezaiekegu:

AITZETAKO TXABALA: Trikuharri txikia da. Hainbat harlauza ditu zutik jarriak, eta harlauza handi bat estalki modura. Basoan dago.

BERROZPIN I, II, III: Hiru trikuharri dira. Tumuluak direnez, lurrez estalita daude. Horregatik, monumentu honen harri zati txiki batzuk besterik ez daude bistan.

LANGAGORRI ZISTA: Zutikako harri gorrixka da. Bere azalera gurutze berezi bat du grabatuta.

TXORITOKIETAKO ZUTARRIA: Zutikako harlauza luzea da. Astigarragako lurrekin mugarri da.

JARDUERA: Hemen lau monumenturen argazkiak dituzu, baita haien izena duten lau txartel ere. Elkartu bakoitza berearekin.

Koadernoko 15. orrialdea.

20. BURDIN AROA

Hainbat herri eta kultura igaro ziren gure inguruetatik. Herri haiek, teknikoki, gurea baino aurreratuagoak ziren. Beraz, hainbat teknika erakutsi zizkiguten.

Keltiarrek, adibidez, burdinaren metalurgia erakutsi ziguten, eta hortik aurrera burdina erabiltzen hasi ginen erreminta eta lan tresna gisa. Teknika berri hori eskuratzeak aurrerapen handiak ahalbidetu zizkigun, dudarik gabe.

Gainera, keltiarrak dira gure inguruan hain ugari egin zituzten mairu-baratzak. Oiartzun inguruan 30en bat daude, Oialekukoa izanik garrantzitsuenetakoa. Mairu-baratzak hilak ehorzteko beste modu bat izan ziren. Burdin Aroko hileta monumentu hauek lurrian ezarritako harri multzo handiak dira. Haien erdian, hildakoen errautsak lurperatzen zituzten.

Guretik igaro ziren herri haiek, bestalde, gorpila ekarri ziguten. Gorpilaren erabilerarekin, besteak beste, gurdi abereen erabilera erakutsi ziguten.

Jasotako beste ikaspen bat abeltzaintza ingurukoa izan zen. Horri esker, abelgorrien eta zaldi azienden abeltzaintza asko hedatu zen.

Jarduera hasi aurretik, haurrekin hitz egin dezakegu irakaspen horiek izango ote zuten garrantziaz eta eraginaz. Gaur egunean zenbat gauzatarako erabiltzen ote ditugun hausnar dezakegu.

JARDUERA: Idatzi bi zerrenda hauetan gorpila eta burdina beharrezkoa duten, edo horietaz osatuta dauden tresnak.

Koadernoko 16. orrialdea.

21. HIZKI-SALDA

Orain arte Aizpitarteko kobazuloetan aurkitutako aztarnak oinarri hartuta Lehen Gizakiei buruz eta haien bizitzeko moduari buruz aritu gara.

Kobazuloetan aurkitutako tresnei buruz aritu gintezke orain: zein ezagutzen dituzten: zerez eta nola egiten zituzten; zertarako eta nola erabiltzen ziren; eta abar.

Ondoren, denen artean, haien izenak idatzi eta zerrenda ditzakegu.

JARDUERA: Hizki-salda horretan lehen gizakiek erabiltzen zituzten hainbat tresnaren izenak daude, goitik behera eta ezkerretik eskuinera. Ea aurkitzen dituzun hainbeste hizkiren artean. Bilatu behar dituzun tresnen irudiak dituzu alboan, lagungarri.

Koadernoko 17. orrialdea.

22. AITZBITARTEKO LAGUNAK

Milaka urte hauetan tresna horiek garatu eta eraldatu ditugu, garaian garaiko beharretara eta baliabideetara egokituz.

Hitz egin dezakegu hurrekin ea tresna horiek erabiltzen ote ditugun gaur egun, zein materialez egiten diren gaur zein tresnek ordezkatu duten haien erabilera eta abar.

Herrian bada elkarte bat, *Aitzbitarteko Lagunak*, historiaurreko gaiak lantzen dituen, Aitzbitarteko kobazuloak abiapuntu harturik.

Elkarte horren jarduera ezagunena, beharbada, urtero antolatzen duten Europako Historiaurreko Uztai eta Bultzagailuzko Tiro Txapelketa da. Txapelketa horretan parte hartzeko baldintza da, partehartzaile bakoitzak bere tresna egitea, historiaurrean egiten zen gisan. Horrez gain, hitzaldiak ere eskaintzen dituzte.

Bere web orrian, www.aitzbitartekolagunak.googlepages.com, kobazuloei, tresnei eta hainbat gauzari buruzko informazioa aurki daiteke, baita su egiteko moduaren gaineko azalpenak ere.

Koadernoan lehiaketaren hainbat argazki eskaintzen dira, partehartzaileek prestatutako tresnak ikus daitezke bertan.

JARDUERA 1: Lehiakideek beren tresnak egin dituzte txapelketan parte hartu ahal izateko. Orain zure txanda, aukeratu tresna bat eta marraztu ezazu zure burua tresna hori erabiliz.

JARDUERA 2: Animatuz gero, guk ere antola dezakegu jaurtiketa lehiaketa bat. Edozein objektu jaurtiki liteke edo hurrek sortutakoak izan litezke. Koadernoko 17. orrialdea.

23. ERROMATARRAK

Erromatarrak ere iritsi ziren gure eskualdera. Haien berri, aurkitu diren aztarnek eman digute, eta gure inguruan ibili ziren garaiko erromatarrek eman zuten gure berri haien idatzietan.

Idatzi horietan Oiasso izeneko hiria deskribatzen dute, eta baita Oleasso izeneko muino bat eta ibaia ere.

Mendeetan desadostasunak egon badira ere leku horien kokapenen inguruan, Irunen aurkitutako aztarnek ez diote zirrikitu handirik uzten zalantzei. Beraz, Irun izango litzateke erromatarrek Oiasso izena eman zioten hiria; mendia, berriz, Jaizkibel litzateke; eta ibaia, Oiartzun ibaia.

Arditurriko meategietan aurkitutako aztarnengatik dakigu erromatarrek meategi horiek ustiatu zituztela.

Meategietatik beruna eta zilarra atera zuten garai hartan. Ondoren, mea itsasoz garraiatzen zuten, eta Pasaiaiko portua ere erabiltzen zuten lan horretarako. Gure lurretan mea biltegiak izan zituztela dirudi.

Bestalde, erromatarrek galtzadak eraiki zituzten. Badirudi, Donostiara joateko galtzada bat eraiki zutela. Haren azken arrastoak zeuden Pontika baserriaren aurrean, gaur egun, Pontikako biribilgunea dagoen inguruan.

Erromatarren etorrerak, aldaketak eragin zituen garaiko arkitekturan, eraikitako multzoaren ordenazioan, jarduera ekonomikoetan eta jendearen pentsamoldean.

Irudian ikus liteke, Oiartzun eta Bidasoa ibaien itsasoratzea Jaizkibel mendiaren alde banatan. Oiasso hiria, egun Irun, Arditurriko meategiak Aiako Harrien magalean, Orereta, Elizalde, Iturriotz eta Altzibar herrixka edo auzoak, Beraun berun biltegia eta erromatar galtzada.

Koadernoko 18. orrialdea.

24. ZER EGIN ZUTEN ERROMATARREK

Erromatarrak gure herrian ere ibili ziren eta, noski, aztarnak utzi zituzten. Arditurriko meategia Oiartzungo lurretan badago ere, garai hartan inguruko ekonomian erabateko eragina izango zuen, baita handik ateratako mearen garraioak behar zuen azpiegiturak eta abar.

Gainera, erromatarrek hainbat teknika eta teknologia erakutsi zizkiguten. Besteak beste, kultura arloko irakaspenak eskaini zizkiguten, hala nola, zenbaki erromatarren erabilpena eta abar.

Herrian, hain zuzen, erromatarren arrastoak izan omen ditugu. Alde batetik, lehen aipatutako galtzada, eta, bestetik, bibliografiak aipatzen du Minerva jainkosaren brontzezko estatuatxo bat aurkitu zela, noizbait. Aurkitu bazuten, desagertua dago orduz geroztik, eta horregatik ez dugu inongo museotan aurkituko.

Koadernoan proposatzen diren jardueren bidez, horiei guztiei gainbegiratu azkarra eman nahi zaio.

JARDUERA: Erromatarrak Arditurriko meategietan aritu ziren. Idatz ezazu zer egin zuten han.

Koadernoko 19. orrialdea.

25. ERROMATARREK ERAKUTSI ZIGUTENA

Erromatarrei buruz dugun informazioa kontuan izanik azter dezakegu gure ingurua eta saiatu ea erromatarrek utzi edo irakatsi zigutenaren aztarnak non topatzen ditugun aurkitzen.

JARDUERA: Aurkeztu diren hiru argazki horietako batean erromatarrek irakatsitako elementu bat agertzen da. Zein ote da? Biribil ezazu.

Koadernoko 19. orrialdea.

Gure herrian izan omen ziren erromatarren bi arrasto desagertuta daude. Alde batetik, galtzada eta bestetik Minerva jainkosaren brontzezko estatuatxo bat.

Koadernoko 19. orrialdea.

26. BERAUN

Erromatarrek guri buruz hitz egin zuten beren idatzietan. Aipamen horietan, lekuen izenak aipatu zituzten. Denboraren joan-etorrian hitz horiek eraldatzen joan dira, eta haietatik eratorritakoak izan daitezkeen zenbait erabiltzen ditugu. Hala, Oiasso, Oleason, Oiassun eta abar aipatu zituzten erromatarrek beren idatzietan. Badirudi izen horiek direla guk erabiltzen dugun Oiartzun-en aldaerak.

Adibide hori abiapuntu hartuta, haurrei eska diezaiekegu hipotesiak egiteko lekuen izenen inguruan: nork asmatu ote zituen; zergatik ote duten izen hori; eta abar.

BERAUN izenaren jatorriarekin jarrai dezakegu hurrena.

Antza, erromatarrek Arditurritik ateratako mea Pasaiaiko portutik ere garraiatzen zuten. Gaur egun Beraun izenez ezagutzen dugun auzoan baserri bat zegoen Beraun izenekoa, eta horrek eman zion izena auzoari. Baina nondik datorkio izena baserriari?

Erromatarrek meategietatik portura garraiatutako mea, beruna kasu horretan, inguru haietan zuten biltegian gordetzen zuten. Beraz, erromatarrek Beraun izeneko tokian berun biltegi bat izan zutela uste da. Irudian ikus litekeen moduan, Arditurritik ekarritako mea Beraunen biltzen zuten, eta gero handik Pasaiaiko portura jaisten zuten itsasontzietan zamatuta eta beste leku batzuetara eramateko.

Koadernoko 20. orrialdea.

27. IZENAK ASMATZEN

Gure herriko hainbat kale, auzo, baserri eta mendi izenak oso adierazgarriak dira. Izenak, askotan, adierazten digu han zer izan zen edo zer gertatu zen.

Horrela sortu ziren Itzieta, Galtzaraborda, Gabierrota, Kaputxinoak, Sorginzulo, Zamalbide eta abar leku izenak.

Hurrekin ikerketa txiki bat egin dezakegu haien abizenen edo ezagutzen dituztenen inguruan, bizi diren auzoen edo kaleen gainekoa eta abar. Gero, jolas gintezke leku izen berriak asmatzera.

JARDUERA: Hiru izen dauzkazu. Galtzada jarraituz, izenaren esanahia edo jatorria jakingo duzu. Elkartu bakoitza dagokionarekin.

Koadernoko 20. orrialdea.

*JARDUERA: Orain zure txanda: asmatu **hiru** leku izen edo abizen, eta bakoitzaren jatorria edo esanahia idatzi.*

Koadernoko 20. orrialdea.

28. PERTSONAIA: JAUNGOIKO TXIKI

Jaungoiko Txikik aitarengandik jaso zuen izengoitia.

Haurtzaro gogorra izan zuen, oso behartsuak ziren etxeakoak. Hainbeste miseria ezin jasanik, aitak bere buruaz beste egin zuen eta amak kalean eskean ibili behar izan zuen. Jaungoiko Txikiri denek barre eta iseka egiten zioten.

Jaungoiko Txiki lapurretan hasi zen. Ondoren, Kaputxinotan Felix Istillart herrikidea hiltzen saiatu zen sabela labanez zulatuz.

Behin, Donostiako sagardotegi batean zegoela, etengabe iseka eta barrez ari zitzaion gizon bat hil zuen.

Mikeleteek atxilotu eta kartzelan sartu zuten. Ondoren, Ceutara eraman zuten. Baina, herritik ateratzerakoan, hiru bizilagunek honela barre egin zioten:

- Eup! Aizak hi! Bidaia ona izan!



- Bueltakoan hil egingo zaituztet- erantzun zien Jaungoiko Txikik, begirada izugarria botaz.

Kartzelan, kartzelari batek Jaungoiko Txikiren kartzela lagun bat zigortu eta jipoitu zuen bidegabekeriaz.

- Horrek ez hau gehiago joko, hago lasai! – esanez, kartzelaria hil zuen bularrean labana sartuz.

Ceutako kartzelatik Melillara eraman zuten 1893. urtean, beren independentzia defendatzen zuten mairuen aurkako gerrara.

Gerra ez zen Jaungoiko Txikiren gogokoa. Ez zuen ulertzen nola hil zitekeen jendea arrazoirik gabe. Orduan, alde egin eta mairuen alde jarri zen.

Marokon Muley-Haffiden laguntzailea izan zen, eta estimu handian izan zion bere zintzotasunagatik.

Mairuak bezala janzten zuen eta asko lagundu zien noizean behin harrapatzen zituzten euskaldunei, horregatik “mairu gipuzkoarra” esaten zioten.

Gerra amaitzean gatibuen trukaketa egin zuten. Muley-Haffid-ek eskaria egin zion Espainiako gobernuari hil ez zezaten desertorea izateagatik. Eskaria bete zuten, baina Cartagenako kartzelara bidali zuten.

Askatasun egarriz, kartzelatik ihes egin zuen eta hamasei egunetan oinez etorri zen herriraino.

Ustekabeko agerpenak herritarrak asaldatu zituen, batez ere iseka eginez Jaungoiko Txiki agurtu zuten hiru lagun haiek.

Hirurak bildu eta zer egin eztabaidatu zuten. Azkenean, hiruren artean dirua bildu, eta ondorengoa proposatu zioten:

- Ameriketarako bidaia ordaindu eta diru zorro hau emango dizugu.
- Ongi zegok! – erantzun zien Jaungoiko Txikik bizitzan lehen aldiz etorkizuna antzemanetz.

Eta Ameriketara joan zen hitzik atera gabe, eta inor hil gabe.

Harrezkero, lan egin zuen, saiatu zen eta aurrera egin zuen. Txilen bizi izan omen zen zenbait ondasunen jabe eginik.

Jaungoiko Txiki izan zen, beraz, herrian 600 urtetan izan zen kriminal bakarra. Goseak, bazterkeriak eta bidegabekeriak bultzatu zuen horretara, baina ongi baino hobeki erakutsi zuen pertsona ona eta langilea zela bizitzak irribarre egin zion lehen aukeran.

JARDUERA: Ez dugu Jaungoiko Txikiren argazkirik aurkitu. Marraz ezazu irudikatu duzun moduan bere bizitza, biografia, entzun ondoren.

Koadernoko 21. orrialdea.

JARDUERA1: Pello Zabaleta herriko bertsolariak Jangoiko-txiki eta haren bizitzaren gaineko bertsoak jarri zituen 1963 urte inguruan. Nahi izanez gero, ikasleekin kantatu ditzakegu.

Material osagarria: [Jaungoiko Txikiren bertsoak](#)

29. ZER IKASI DUZU?

Unitate didaktikoaren amaierara helduta, azaldutako guztiaz ikasleek zer ikasi duten jakitea interesgarria litzateke. Hemen proposatzen den jarduera egiteko bi aukera egon daitezke: alde batetik, guztien artean unitatean zehar ikasitako guztiaren gaineko gainbegiratua egin dezakegu, eta ondoren zer ikasi duten idazteko eska diezaiekegu.

Haatik, gehiago interesatzen bazaigu ikasle bakoitzak ikasi duenaren gaineko berri izatea, orduan, komeniko litzateke proposatzen den jarduera bakarka egitea.

JARDUERA: Idatz ezazu zer ikasi duzun.

Koadernoko 22. orrialdea.

30. ZER GUSTATU ZAIZU GEHIEN?

Unitate didaktiko honetan gure lurak sortu zirenetik erromatarren garairainoko ibilbidea eskaini da. Garai asko eta oso desberdinak, beraz.

Interesgarria litzateke jakitea zer den hurrei gehien gustatu zaiena: garaia izan liteke, jarduera... Jarduera hau era irekian aurkezten badiegu interesgarria izango da bueltan jasoko dugun informazioa.

JARDUERA: Idatz ezazu ikasi dugun guztitik gehien gustatu zaizuna.

Koadernoko 22. orrialdea.

GEHIAGO JAKITEKO

BIBLIOGRAFIA

- ZENBAITEN ARTEAN: *Erreterriko Historia*, Erreterriko Udala.
- BOZAS URRUTIA, E.: *Erreterria kondairan eta ipuin-zaharretan*, Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones S.A, Donostia, 1976.
- GOÑI GALARRAGA, Joxeba M.: *Historia de Renteria*, Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1969.
- GAMON, JUAN IGNACIO: *Noticias historicas de Renteria*, 1930.
- ELBERDIN; LUIS: *Orereta izena eta izana*, Orereta, 1995.
- PLANO: *Euskaldunak historiaurrean*.

ERRALDOIAK

- INSAUSTI, JOSE LUIS: Erraldoi eta buruhandiak, 1919-2004; OARSO 1998, 128. or

HISTORIAUREA

- ARRIZABALAGA, A., LANDA, J.L: “La vida en las cuevas durante la prehistoria”, in Euskal Herria, 15 (2005 apirila-maiatza), 84-95.
- AGIRRE SORONDO, Antxon: “Trikuharriak duela 4.000 urteko hilobiak”, in Nora, 14 (2009ko martxoa), 26-29.

ERROMATARRAK

- URTEAGA, Mertxe: “Oiasso. Irun, 100. urtea”, in Nora, 1 (2008ko otsaila), 26-29.
- NUÑEZ MARCEN, Julio; MAGALLON BOTAYA, Angeles: “Erromatar galtzadak”, in Nora, 8 (2008ko iraila), 26-29.

SAREAN

www.erreterria.net
www.oarsoalde.net
<http://hnoiartzualdea.wordpress.com/landutako-gaiak/>
<http://oarsoaldeazagutuz.wordpress.com/2010/03/22/oarsoalde-azagutzeko-lezo-lh-ikastetxean-prestatutako-materialak/>

LUBERRI GEOLOGIA IKASGELA: www.luberri.org
AITZBITARTEKO LAGUNAK: www.aitzbitartekolagunak.googlepages.com
ARDITURRIKO MEATEGIAK: <http://www.arditurri.com>
MONUMENTU MEGALITIKOAK
http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-10493/eu/contenidos/informacion/igoin_megalitoak/eu_megalito/triku_harriak.html
BURDIN AROA
<http://bertan.gipuzkoakultura.net/eu/20/eu/1.php>

ERROMATARRAK

<http://www.bertan.gipuzkoakultura.net/eu/17/eu/1.php>
<http://www.arditurri.com/>

OIASSO MUSEOA

<http://www.oiasso.com>

IKUS ENTZUNEKOAK

*Barne barnetik Erreterria. Galdare comunicaci3n audiovisual. DVDA
Arbasoen sua. Oiartzungo Udala. VHSa.*

GOMENDATUTAKO IRTEERAK

LUBERRI geologia museoa
OIASSO erromatar museoa
ARDITURRIko meategiak

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.hikhasi.com/gida